

# KANBO-ko HERRIKO KONTSEILUKO BILKURA

## 2017ko UZTAILAREN 22an

Herriko Kontseilua 2017ko uztailaren 22an herriko etxean bildu da 10etan, kide zaharrena den SAINT JEAN Jaunaren lehendakaritzapean.

Hor ziren: Bernadette Jougleux , Christian Devèze, Eliane Noblia, Frédéric Bardin, Pascale Lespade, Didier Irastorza, Eliane Aizpuru, Henri Saint Jean, Anne-Marie Pontacq, Vincent Bru, Vincent Goytino, Christiane Hargain-Despéries, Patrice Dor, Jean-Jacques Lassus, Corinne Othatceguy, Peio Etchelecu, Maryannick Hirigoyen, Carmen Gonzalez, Pascal Bourguet, Véronique Larronde, Camille Jenvrin, Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, jaun andereak, denak herri kontseilari izanik.

Ezin etorriak : Yolande Huguenard, Argitxu Hirigoyen, Jean-Noël Magis, Roger Barbier, Amaia Beyrie, jaun andereak, denak herri kontseilari izanik.

Ahalordeak: Yolande Huguenard andereak Christiane Hargain-Despéries andereari, Argitxu Hirigoyen andereak Carmen Gonzalez andereari, Jean-Noël Magis jaunak Pascal Bourguet jaunari, Roger Barbier jaunak Véronique Larronde andereari, Amaia Beyrie andereak Nathalie Aïçaguerre andereari.

### **1 – Saioko idazkariaren izendapena.**

Hor zirenek aho batez Véronique Larronde anderea izendatu dute saioko idazkari.

### **2 – Iragan saioko aktaren onarpena.**

Saint-Jean jaunak Herriko Kontseiluko kideei galdetzen die ea badutenez 2017ko uztailaren 9ko saioaren aktari buruz oharririk egiteko.

Saint-Jean jaunak Herriko kontseiluaren iragan saioko akta bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

Aïçaguerre andereak ohartarazten du Herriko Kontseiluaren ez ohiko saio honi esker, akta kasik epean barnean afitxatua izan den dela. Izan ere, hamabost egun barne afitxatuko da, legeak zortzi eguneko epean egitea eskatzen duelarik. Ohar hori egiten du, zeren usaian aktak hilabete bateko, edo hilabete eta erdiko epean afitxatzen baitira.

Anne-Marie Pontacq anderea gelan sartzen da.

### **3 – Auzapezaren hautatzea.**

Saint-Jean jaunak oroitarazten du saio hau Kanboko auzapez berria izendatzeko egiten dela. « Badakizue emen girela egun, leku huntan, Kanboko herriko etxean, gure auzapez berria hautatzeko ».

Bozketara jo aitzin, Saint-Jean jaunak zorionak ematen dizkio Bru jaunari « bere auzapez kargua uzten baitu azken legebiltzarreko hauteskundeetan diputatu izateko ederki hautatua izan delako. Egiteko horiez aparte, Kanbo eta Ipar Euskal Herriko enbaxadore bikaina izanen da." Saint-Jean jaunak eskerrak ematen dizkio azken hogeita bi urteotan auzapez gisa gure herriaren zerbitzurako egin duen lanarengatik. Auzapez aipagarria izan da, eta Kanbon aztarna iraunkorra utziko duena.

Saint-Jean jaunak oroitarazten du, Auzapez jaunak Pirinio Atlantikoetako Prefetari auzapez kargua uzteko gutuna igorri diola, 2017ko uztailaren 10ean.

Auzapezaren bozketara pasa aitzin, Saint-Jean jaunak Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko artikulua batzuen irakurketari ekiten dio :

#### L.2122-15 artikulua:

« Auzapezaren kargu uztea Estatuaren departamenduko ordezkariari helarazi behar zaio. Hauteskunde Kodeko (diputatu mandatuak) L0141 eta LO151 artikulua betez ematen den auzapez kargu uztea ontzat hartua izanen da Estatuaren departamenduko ordezkariak jasoko duenetik».

#### L.2122-14 artikulua:

« ... Herriko Kontseilua L.2122-8 artikuluko kasuetako batean baldin bada, behar diren hauteskundeak egiten dira eta Herriko Kontseilua deitu behar da ondoko hamabost egunetan auzapeza ordezkatzeko.»

#### L.2122-17 artikulua:

« Auzapeza ez bada hor, etenaldian baldin bada, kargutik kendua izan baldin bada edo beste edozein ezintasunengatik, auzapeza ordezkatzeko du bere botere guztiekin, orde batek, izendapenen ordenean, hala ezin bada, Kontseiluak izendatzeko lukeen herriko hautetsi batek, eta hala ezin bada taularen ordenean.

Auzapezak kargua uzten duenean bere funtzioak bete ez ditzakeenez, lehen auzapez ordeak ordezkatzeko du eta berak du Kontseilua deitzen».

#### L.2122-10 artikulua:

« Auzapeza eta ordeak herriko kontseiluaren iraupen berarentzat hautatuak dira».

#### L 2122-4 artikulua:

« Herriko Kontseiluak auzapeza eta ordeak hautatzen ditu bere kideen artean, sekretuzko bozketa bidez eta gehiengo absolutuan. Nehor ezin da auzapez hautatua izan hemezortzi urte bete ez baditu ».

#### L 2122-7 artikulua:

« Auzapeza sekretuzko bozketa bidez eta gehiengo absolutuan hautatzen da. Bozketaren bi itzuliren ondotik hautagai batek ere ez badu gehiengo absoluturik erdietsi, hirugarren itzuli bati ekiten zaio, eta orduan bozketa gehiengo erlatiboan egiten da. Bozketan berdintasuna emate bada, zaharrena izendatzeko da ».

#### L.2122-8 artikulua:

« Herriko Kontseiluko kide zaharrenak du auzapeza hautatzeko saioaren lehendakaritza hartuko.»  
Saint-Jean jaunak auzapez izateko hautagaiei dei egiten die.

Gehiengoaren izenean Bernadette Jougleux anderea aurkezten da « Unis pour Cambo » zerrendaren izenean eta oposizioko Argitxu Hiriart-Urruty anderea « Nahi Dugun Herria » zerrendaren izenean.

Saint-Jean jaunak bulegoaren osatzeari ekiten dio. Horretarako bi laguntzaile behar dira : gehiengo kide bat eta oposizioko bat.

Laguntzaile izendatuak dira : Camille Jenvrin jauna eta Nathalie Aïçaguerre anderea.

Hiriart-Urruty andereak honako adierazpena egiten du:

« Oposizioko hautetsiok hiru urte daramagu udal talde honetan lan egiten. Gure xedea da gizakia kezka nagusi duen herri plurikultural baten alde egitea. Zeregin hau ez beti erraza izan arren, herri eta elkargoaren kudeaketan gauza anitz ikasi dugu. Alabaina, Errobi Herri Elkargoko hautetsi izanik, bi batzordetan aritu naiz: lurralde antolamenduarena eta euskararena.

Lurralde antolamenduaren batzordeak LHP, bizitegi politika eta mugikortasunak lantzen ditu.

Mugikortasuna: hiru urtez aritu gara eskaeraren araberako garraio proiektua lantzen eta espero dugu EHE-rekin gauzatuko dela.

LHP berrikusteko lanak bidean dira. Laborantza lurren artifizializazioa bereziki, eta lur funtsen kontsumoa orohar, hurbiletik zaintzen segitzen dugu.

Gure helburu nagusia da gazteek Kanbon etxebizitza ukatea baldintza duinetan, ez ordea bigarren egoitzen eta dirudunentzat soilik eskuragarriak diren etxebizitzaren biderkatzea. Ezen, alde batetik horrek ez baitie lekuko beharrei aterabiderik ematen eta bestalde, Kanboko gazteak bereziki, Kanbotik joatera behartuak direlako etxebizitza atxemateko.

Euskara batzordean, besteak beste, Kanboko aitzinamendu kontratua onartarazi dugu, Itsasu eta Uztaritzerekin batera .

Oroitarazten dizuet aitzinamendu kontratu horren xedea dela, lekuko erakundeak euskara progresiboki integratzen laguntzea, azkenean elebidunez funtzionatu arte eta modu autonomoan, herritarrei zerbitzu horiek bi hizkuntzetan emateko.

Euskara gure lurraldearen osagai nagusia bilakatu da, bereziki lana atxemateko. Gainera, biztanleriak gero eta interes handiagoa agertzen du euskara ikasteko (eskola elebidunetako eta murgiltze ereduko kopuruek etengabe gora egiten dute). Hori dela eta, espero dugu Kanboko herriak euskararen biziberritze prozesu horretan lan egiten segituko duela, egindako indarrak segituko dituela eta ez dela bide bazterrean geldituko.

2017 honetan, Euskal Hirigune Elkargoa (EHE) sortu da. Batzuek uzkurkeriaz ikusten dute, gehiengoak aldiz esperantza handiarekin.

Proiektu hori landu duten guztiei konfiantza erakutsi diegu, bereziki Hazparneko tailerretan lehenik aritu diren hautetsiei.

Hautetsi gisa, gure betebeharra da erakunde berri horren eraikuntzan baikor jokatzeko, eta hor ere espero dugu Kanbo eraikuntza horretan parte hartuko duela.

Horregatik aurkezten dut nire hautagaitza, eta gure sinesmenetatik hurbil sentitzen direnen sostengua jasotzea espero dut.

Gure herriak behar ditu hautetsi baikorrak eta lanean prest direnak bere indartzeko. »

Bozkari ekiten zaio: Saint-Jean jaunak jendeak banaka deitu, gordelekitik pasa eta gutunazalak hautestontzian ezartzen dituzte.

Bozkaren emaitza:

Bozkatu dutenen kopurua .....	29
Bozka baliogabeak.....	1
Bozka baliokoak .....	28
Gehiengo absolutua .....	15

Emaitzak:

Argitxu Hiriart-Urruty anderea.....	4 boz.
Bernadette Jougleux anderea .....	24 boz.

Bernadette Jougleux anderea izendatua da Kanboko auzapez, eta Saint-Jean jaunak auzapezaren xingola eta herriaren makila eskura ematen dizkio.

Bernadette Jougleux andereak denei eskerrak ematen dizkie eta "Unis pour Cambo" zerrendako hautagaiak 25 bozetik 24 baizik ez dituela adierazi du, berak ez baitu bere buruarentzat bozkatu, Herriko Kontseiluko kideen esku utzi nahi baitzuen bere alde egiteko hautua. Biltzarraren lehendakaritza hartzen du.

Jougleux andereak Bru jaunari :

« Kanboko auzapez gisa eta iragan zein gaurko udal taldeen izenean, baita Kanboko biztanle guztien izenean ere eskerrak eman nahi dizkizut zuri, Vincent, gure herriaren zerbitzuko auzapez izan zaren hogeita bi urte horientzat eta Rita Labéguerie anderearen agintaldian kultura gaietarako hautetsi izan zaren sei urteentzat, ni orduan herriko kontseilari nintzenean. Zure engaiamendua hori baino gehiago izan da: 2001ean Kontseilu Nagusiko kide, ondotik departamenduko hautetsi eta azkenik diputatu.

Zure engaiamendua erabatekoa izan da, Kanbo eta Kanboarren alde erakutsi duzuna bezalaxe.

Saiatu zara, ahal zenean, beren eskaerei erantzun baikorra ematen. Zailtasunak zailtasun eta oztupoak oztupo, errezibitu dituzu, entzun dituzu, haiengana jo duzu eta sostengatu dituzu. Hondamendi egoeretan, bertan egoten zinen, haiekin batera, auzapez eginbarra betez.

Urte guzti horietan, gure herria modernizatzen, edertzen eta ekipatzen jardun duzu, bizi kalitatea eta irisgarritasuna hobetzeko; eta hori dena ingurumena zainduz.

Ahalegin guztiak egin dituzu garapena kudeatzeko baina trabatu gabe. Hirigintza alorrean zorrotza izan zara, eta arreta berezia izan duzu eraikuntza berrien arkitekturan. Hori dela eta, Kanbok bere irudia atxiki du, eta gainera, hamar urtez, hiri txiki panpox eta erakargarria bilakatu da, naturaren baitan. Eta guzti horrek eragin handia izan du bere garapen ekonomikoan eta erakargarritasunean.

Gidatu dituzun proiektu guztiak argitasunez eta lehentasun, aukera eta diru baliabideen arabera begizorroztasunez eraman dituzu. Besteak beste, hauek aipatu nahi nituzke: zerbitzu anitzeko gunea mediateka eta postarekin, kirol gela, futbol zelaia, zinemaren berritzea, herriko etxearen handitzea, turismo bulegoa, herri erdia eta behereko plazaren berpiztea, bigarren pilota

plaza, Assantzaren eskuratzea, etxebizitza lagunduak, autobus geltokiaren antolamendua eta berriki “agorespace” joko eremua, skate-park-a eta San Josepe parkeko jolas gunea. Ez baitituzu gazteak ahanzten. Azken proiektu hauek arrakasta handia dute jadanik haur eta nerabeen artean.

Kultur politika eraginkorra eramateko ahaleginak egin dituzu. Euskarari bere lekua eman diozu eta bere garapena lagundu ere. Arnaga gunea turistikoa bilakatu da eta bere ospea biziki zabaldua da. Zure indar guztiak ezarri dituzu eliza Monumentu historiko sailkatua izateko, Arnagako zalditegiak bezalaxe, eta tematu zarelako abiatu dira eliza berritzeko lanak.

Ekitaldi gehienetara joanez elkarteak bultzatu dituzu, urteroko diru laguntzak emanez eta bereziki haiei adi egonez.

Zure engaiamenduarekin, zure eginkizuna bete duzu. Hautesleek berriki adierazi dizute.

Laburbilduz, zuri esker jendeak hauxe erran dezake : « Zein goxo den Kanbon bizitzea! ».

Frantziako Lege Biltzarrean hasten duzun bizia hain oparoa izatea opa dizugu.

Vincent, auzapez ona izan zara.

Vincent, Milesker. »

Biltzarra txaloka.

Auzapez andereak makila bat eskaintzen dio Vincent Bru jaunari.

Bru jaunak bere taldeko kide guzietan eskerrak ematen dizkie sorpresa horrengatik. Eskerrak ematen dizkie beretzako makila eder horrek zentzu eta erran nahi handia duelako. Bere aldeko begirune horrek asko hunkitzen du.

Bru jauna biziki kontent da Jogleux andereak auzapez izatea onartu izana, nahiz eta gauza erraza ez izan. Lekua berea zen diputatu hautatu izan denetik, mandatuak ezin baitira metatu, normala eta logikoa den bezala. Bru jauna Emmanuel Macron, sostengatu duen Presidentearen begipean joaten da, sostengatzen segitzen duen Presidente eta nolaz bait orain Kontseilu honetan dagoena bere argazkia aste honetan ezarria izan baita.

Bru jaunak pentsatzen du auzapez eta diputatu funtzioak bereiztu behar direla, herritarrek hala eskatzen dute eta zentzuzko gauza da.

Bru jauna biziki kontent de Jogleux andereak eginkizun hau onartu baitu, inguruan duen talde osoarekin, eta segur da agintaldi honetan gelditzen diren bi urte eta erdi, kasik hiru urte hauetan taldea gidatzen eta animatzen jakinen duela, eta bereziki kanboarrei adi egonen dela, hiri honetako gizon eta emazte guztiei adi egonen dela horretarako behar diren gaitasunak dituelako. Bere engaiamenduarekin jadanik frogatu du, eta poz handiarekin uzten dio bere lekua egiazko kalitateak dituen eta biziki estimatzen duen pertsona bati.

Bru jaunak ez du iraganera itzuli nahi. Egia da Kanboko herriarentzat engaiatu dela. Departamenduko Kontseilari edo Herriko Kontseilari artean hauta zezakeen. Ez du zalantza izpirik izan. Herriko Kontseilari izaten segitu nahi du, herriari biziki eta zintzoki atxikia baitzaio. Zortea izan du agintera heltzean finantzamenduak baitziren, lau talde zoragarriekin lan egiteko zortea izan du, denak desberdinak ziren baina gauza anitz egin ahal izan dute elkarrekin. Bru jaunak zortea izan du Kanboko herria garatzen laguntzeko momentu egokian iritsi baitzen.

Kanbok ekintzak behar zituen, Kanbok gauza franko zuen bere alde, baina pixka bat lokartua zegoen, eta Bru jaunak pentsatzen du biziberritu behar zela, gauzak asmatu behar zirela eta bereziki kanboarrentzako ekipamenduak eta guneak eraiki behar zirela. Hori da hain zuzen bere taldeekin egiten saiatu dena; biziki kontent da, baina gauza guztiek denbora bat irauten dute, eta gibelera ez baina aitzina begiratu behar da. Horregatik gaurdanik abentura berriak bizitzera doa Frantziako Lege Biltzarrera.

« Haatik, Bernadette eta kide maiteak, bistan da Kanbo ez dudala ahantziko. Kanboar eta Kanboko hautetsi izaten segituko dut, eta horretaz harro nago. Milesker.»

Biltzarra txaloka.

Auzapez andereak « Unis pour Cambo » zerrendako kideak eskertzen ditu bere alde bozkatzegatik, eta Bru jauna eskertzen du bere konfiantzarengatik. Honako adierazpena egiten du:

« Nire jardun guztietan duintasunez ariko naiz.

Nahiz eta herritar gisa engaiatzen hasi nintzen 1977an Michel Labéguerie-rekin, Vincent Bru-ren ondotik auzapez izateko ikas-prozesu bat egin beharko dut. Vincent, zuregana joko dut, eta badakit hor izanen zaitudala.

Nire perstonalitatea eta Vincent-ena desberdinak dira, beraz gauzak ez dira berdin izanen. Bidean diren gauzez dudan emazte begirada osagarria izanen da.

Landa lana maite dut, eta obra lekuetara joaten segituko dut. Erabiltzaileekin egotea maite dut. Errezibituko ditut eta entzunen ere.

Zuen laguntzarekin kontatuko dut, bereziki auzapez orde jaun eta andereekin, bakoitzaren arduren arabera.

Herriko langileekin ere kontaktatzen dut. Haien inplikazioa eredugarria izaten segitzea nahi dut, kalitatezko zerbitzu publikoa atxikitzeko.

Gure zerrendari dagokionez, orain arte taldean jardun dugu. Denek elkar entzuten dugu. Hitzartze erregularrak segitzea ezinbestekoa zait, eta horren alde egingen dut.

Herriko Kontseiluetan, gai bakoitzean ardura duenak aurkeztuko ditu txostenak. Zuei, oposizioko kideei, eskatzen dizuet barne araudia errespetatu dezazuen. Irailean berrikusiko dugu. Honela erantzunak eraginkorrago eta osoagoak izanen baitira.

Badira oraindik agintaldi hasieran aurreikusi ziren proiektu batzuk egiteko: animazio gunea, Behereko Plazako eskolan gela bat, tenis zelai estalia eta elizaren berritze lanak. Horien gauzatzen saiatuko gara.

Azkenik, zuei, hemen zaudeten guztioi, Kanboko biztanle eta herriko langile, zin dagizuet, nire engaiamenduak duen garrantziaz jabetua naizela. Errespetatuko dut, eta lan egingen dut.

Kanbon ongi bizitzeko giroa garatzen segituko dugu eta gure herriaren irudi eta ospea urrunago hedatzen segituko dugu.

Hor izanen nauzue, besoak zabalik eta herriaren alde. Milesker. Kanbo maite dut. »

Biltzarra txaloka.

#### **4 – Auzapez orde kopuruaren finkatzea.**

Auzapez andereak Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko artikuluen irakurketari ekiten dio :

L 2122-1 artikulua:

« Herri bakoitzean bada auzapez bat eta herriko kontseiluko kideen artean bozkaz hautatutako auzapez orde bat edo gehiago».

L.2122-10 artikulua 3. paragrafoa :

Auzapez berri bat hautatzen delarik, zein izan ere arrazoia, auzapez ordeen bozketa bati ekiten zaio».

L 2122-2 atikulua:

« Herriko Kontseiluak auzapez ordeen kopurua finkatzen du, baina kopuru horrek ez dezake kontseiluko kideen kopuruaren %30a gainditu».

L.2122-7-2 artikulua:

« 1000 biztanletik gorako herrietan, auzapez ordeen bozka zerrendaka egiten da, gehiengo absolutuan, nahasketarik eta bozka preferentzialik gabe.

Zerrenda bakoitzean, sexu bakoitzeko hautagaien arteko aldea gehienez batekoa izan behar da ».

Horiek horrela, Kanbo Herriko Kontseiluak hogeita bederatzi hautetsi dituenek, gehienez zortzi auzapez orde ukan ditzake.

LKKO-aren (Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorra) arabera, Auzapez andereak Herriko Kontseiluari proposatzen dio ordeen kopurua zortzitan finkatzea.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Aho batez onartua.

#### **5 – Ordeen bozkatzea.**

Auzapez andereak Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko artikuluen irakurketari ekiten dio:

L 2122-4 artikulua:

« Herriko Kontseiluak auzapez eta auzapez ordeak sekretuzko bozketa bidez hautatzen ditu».

L 2122-7-2 artikulua:

« 1000 biztanletik gorako herrietan, auzapez ordeak zerrendako sekretuzko bozka bidez egiten da, gehiengo absolutuan, nahasketarik eta bozka preferentzialik gabe. Zerrenda bakoitzean, sexu bakoitzeko hautagaien arteko aldea gehienez batekoa izan behar da ».

Auzapez andereak auzapez orde hautagairik ote den galdetzen du.

Devèze jaunak adierazten du biltzarrak oraintxe ordean kopurua zortzira finkatu duela eta "Unis pour Cambo" taldearen izenean honako zerrenda aurkezten duela:

Christian Devèze, Eliane Noblia, Frédéric Bardin, Pascale Lespade, Didier Irastorza, Eliane Aizpuru, Henri Saint-Jean, Anne-Marie Pontacq.

Hiriart-Urruty andereak « Nahi Dugun Herria » taldearen zerrenda aurkezten du:

Argitxu Hiriart-Urruty, Philippe Bacardatz, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie.

Bozkari ekiten zaio auzapezarentzat bezala: Auzapez andereak jendeak banaka deitu, gordeleketik pasa eta gutunazalak hautestontzian ezartzen dituzte.

Bozkaren emaitza:

Bozkatu dutenen kopurua .....	29
Bozka baliogabeak.....	0
Bozka baliozkoak .....	29
Gehiago absolutua .....	15

Emaitzak:

Christian Dévèze jaunak aurkeztu duen " Unis pour Cambo" zerrendak ..... 25 boz.

Argitxu Hiriart-Urruty andereak aurkeztu duen « Nahi Dugun Herria » zerrendak ..... 4 boz.

Devèze jaunak daraman zerrendako hautagai hauek izendatu dira auzapez orde eta beren funtzioak hartu dituzte :

1. auzapez ordea : Christian Devèze jauna
  2. ordea : Eliane Noblia anderea
  3. ordea : Frédéric Bardin jauna
  4. ordea : Pascale Lespade anderea
  5. ordea : Didier Irastorza jauna
  6. ordea : Eliane Aizpuru anderea
  7. ordea : Henri Saint-Jean jauna
  8. ordea : Anne-Marie Pontacq ordea
- Biltzarra txaloka.

Devèze jaunak hautatuak izan diren « Unis pour Cambo » taldeko kideak eskertzen ditu eta ohartarazten du Auzapez andereak ez bezain xume, berak aurkeztu duen zerrendaren alde bozkatu duela eta denek ikusi ahal izan dutela zerrenda horrek ukan zitzakeen boz guztiak ukan dituela.

Aïçaguerre andereak ohartarazten du Anne-Marie Pontacq anderea auzapez orde izendatuz, herrian bizi ez diren ordean kopurua laukoa dela. Ondorioz, ordean %50a ez da Kanbon bizi.

Devèze jaunak ihardesten dio Kanbok herrian bertan bizi ez diren hautetsiak baldin badituela, ordeetatik harago, horrek erakusten duela herriaren eragina bere mugetatik harago joaten dela. Ohartarazten du beste hiri handiago edo txikiago anitzetan, auzapez ordeak ez direla baitezpada herri erdian bizi, pilota plaza eta elizaren artean.

Hiriart-Urruty andereak humorez erantzuten dio, horren arrazoia izan daitekeela Kanboko alokairuen prezioa garestiegi dela auzapez orde horiek herrian bizitzeko.



Devèze jaunak uste du gaur ez dela alokairuez eta beste gaiez hartzeko eguna. Hiriart-Urruty andereak oroitarazten du gai hori landu behar dela eta Bru jaunak 2014 arte arlo horretan eraman duen ekintza aipatuz erantzun dio. Devèze jaunak uste du herriak alokairu eta etxebizitza lagunduen alorrean gauza anitz egin duela eta Bernadette Jouglex auzapezaren agintean hala segituko duela.

LKKO-aren L. 2122-12 artikulua araberak, Auzapez andereak adierazten du bozen emaitza publikoa izanen dela hogeita lau oren barne, herriko etxeko ateetan afitxa bat emanez.

## **6 – Auzapez, orde eta kontseilari delegatuen ordain sariak.**

Auzapez andereak oroitarazten du lekuko hautetsiek jaso ditzaketen ordain sariak Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2123-20 eta ondoko artikuluetan zehaztuak direla. Jakitera ematen du auzapezak jaso dezakeen ordain sari gorenak, herriaren maila demografikoaren eta funtzio publikoko indize eskalako muturreko indize gordinaren arabera dela, hots 1015-eko indize gordina (821-ez emendatua). Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2123-22 artikuluan biltzen diren herrietako hautetsientzat zenbateko hau emendatua izan daiteke.

Auzapez ordearen funtzio ordain sariak ere herriaren maila demografikoaren arabera dira, eta funtzio publikoko indize eskalako muturreko indize gordinaren ehuneko batekin (1022-ko indize gordina).

Auzapezaren funtzioen delegazioak dituzten herriko kontseilariak ordain sari bat jaso dezakete, Herriko Kontseiluaren erabakiz, baina ordain sariarentzako aurrekontua gainditu gabe. Horri buruz, jakin behar da LKKO-eko L. 2122-18 artikulua auzapezaren esku uzten duela bere funtzioak orde bati edo gehiagori delegatzeko aukera, eta ordeek ezin badute edo jadanik delegazio bat baldin badute, Herriko Kontseiluko kideei eman diezaike delegazioa.

Auzapez andereak oroitarazten du herria 3 500 eta 9 999 biztanle arteko herrien maila demografikoan kokatzen dela eta urteko ordain sariaren gehieneko zenbatekoak hauek direla (2017ko otsailaren 1eko balioa, 2017ko urtarrilaren 26ko 2017-85 dekretuak finkatua):

Auzapeza: 25 546,33 €,  
Auzapez orde bakoitzarentzat: 10 218,53 €.

Auzapez andereak biltzarrari galdetzen dio auzapez, orde eta delegazioak dituzten herri kontseilarien artean kredituak banatzeko modalitate eta xedapen hauei buruzko erabakia hartzeko.

Herriko kontseilari proposatzen dio:

- turismo gune sailkatuak diren herrien kasuan Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2123-22 eta R.2123-23 artikuluek aurreikusten duten ordain sariaren emendatzea.

- honako esleipenak onartzea,

- auzapezari: funtzio publikoko indize eskalako muturreko indize gordinari dagokion tratamenduaren %55eko funtzio ordain sari bat,
- auzapez ordeei : funtzio publikoko indize eskalako muturreko indize gordinaren %15eko funtzio ordain sari bat,

- delegazio bat duten herriko kontseilariei: funtzio publikoko indize eskalako muturreko indize gordinaren %3,54eko funtzio ordain sari bat

Zehazten du

- ordain sariak funtzionarioei aplikatzen zaien 100eko indize emendatuaren balioaren bilakaera automatikoki segituko dutela;
- auzapezak eta bere ordeek funtzioak hartzen dituztenetik ordainduko zaizkiela,
- gastu hau herriko aurrekontuko 6531 artikuluan sartua dela.

Bacardatz jaunak auzapezaren, ordean eta kontseilari delegatuen ordain sariaren zenbatekoak ezagutu nahi lituzke.

Auzapezak erantzuten dio datorren Herriko Kontseiluan emanen dizkiola, momentuz berak ere ez baititu elementuak.

Aiçaguerre andereak zehazten du, 2014ean ohartarazi zuen bezalaxe ordain sariaren taulak egungo bilkura txostenari atxikia izan behar zuela.

Devèze jaunak zehazten du ordain sari horiek aurrekoekin ez direla zentimo batez ere aldatzen. Ez da inolako sariaren emendatzerik. Deitoratzen du 2014az geroztik ez baititu elementu horiek ukan, baina pentsatzen du zinez behar izan balituela, orduetik berriz eska zitzakeela baldin eta gaia hain garrantzitsua bazen. Dena den, ordain sariaren xehetasunak datorren Herriko Kontseiluan ukanen dituzte.

Aiçaguerre andereak bozka berri bat dela dio, sari berriak, herriko kontseilu berri bat eta beraz loturik izan behar zen taula berria eskatzen du.

Devèze jaunak errepikatzen du ordain sariak ez direla euro batez aldatzen. Ongi entzuten du eskatzen zaion formalismo hori, baina garrantzitsuena da emendatzerik ez dela. Devèze jaunak zehazten du atzo, iragan hilabeteko eta aitzinekoetako ordain sariaren ondoan, oraingoak ez direla aldatuko datozen hilabeteetan.

Bacardatz jaunak gehitzen du aitzineko hiru urteetan, hainbat kontseilutan, erran izan zaiela zuzkiduren beharrezkoak herriko finantzen beharpena eragin zuela, proiektuentzat. Ohartarazten du zuzkiduren apaltzeak ez duela hautetsien sarietan eraginik izan. Proiektu batzuk gibelatuak izan dira, beraz hautetsien ordain sariak era berean apalduak izan zitezkeen.

Devèze jaunak ihardesten dio demagogiaz jokatzuz gero, herriak karga guztiak gutitu zitzakeela, baina herriko finantzian eragina duten beste elementu batzuen artean diru laguntzak kontutan hartu behar direla, eta hauek arloko arabera emendatze sistematikoak ukanen dituztela. Gaur egun ordain sariaren inguruan eztabaida zabala piztu da, eta Bru jaunak, Frantzia mailan bere ekarpena eginen du hautetsien estatusaren gainean. Zintzoki errateko, Kanbon ematen diren ordain sariak bereziki auzapezarena, baita ordean ere, nahiz eta hauenak behar bada berrikus daitezkeen, ez du uste herriko kontuetan eragin berezirik dutela. Baina auzapezaren ordain sariari dagokienez, eta ardurak kontutan izanik, Devèze jaunak beti pentsatu du apalegiak zirela, bereziki arlo pribatuan ematen direnen ondoan.

Gai honekin bukatzeko, Hiriart-Urruty andereari normala zaio hautetsiek ordain sariak jasotzea egiten duten lanarentzat. Lana egina delarik. Ordeei dagokienez, bada "ekonomia" batzorde bat baina sekula bildu ez dena. Behin ere ez hiru urtez. Hori azpimarratu nahi du.

Devèze jaunak ihardesten dio batzordeen bilkurak beharren arabera egiten direla, bilkura egitea justifika dezaketen gertakarien arabera. Hortaz, gai hauetaz arduratzen den ordeak bereziki, jasotzen duen ordain sari tipia merezi du.

Bru jaunak dio egiazko lana eta lanaren eraginkortasuna ez direla soilik batzordeetara mugatzen. Hiriart-Urruty andereari oroitarazten dio ordeak astelehen guztiz biltzen direla, erregulariki etortzen direla herriko etxera eta horren lekuko dela. Beraz, lana egiten da. Berez, ordain saria ez dagokio ordeari, baizik eta auzapezarendik delegazio bat jaso eta betetzen duenari. Delegazio hau egiazki bete behar da. Ez da funtzio baten ordaina, baina auzapez ordeak pertsona gisa herriaren zerbitzurako egiten duen lan batentzako ordain sari bat. Bru jaunak Herriko Kontseiluko kideek hautatu dituzten pertsona guztiek egiazki Konboko herriarentzat lan egin dutenaren lekukotasuna ekar dezake. Normala da beraz ordain sari bat ukatea. Gainera, Bru jaunak ohartarazten du herri batzuetan, non oposizioko lagunek ardurak betetzen dituzten ordain sariak jasotzen dituztela, baita Euskal Hirigune Elkargoko ordain sariak ere.

Hiriart-Urruty andereak errepikatzen du ez dagoela ordain sarien kontra, baldin eta justifikatuak badira. Berriz ere "Ekonomia" batzordea aipatzen du. Kanbon, Beaulieu zentroa hetsi dute, Argia zentroa Baionara eraman dute, lan postu anitz galdu da. Halere, hiru urtez ez da bilkurarik egin. Behar bada hau ez da hain inportantea gehiengoa duen taldearentzat.

Aizpuru andereak erantzuten dio batzorde horren bilkurak egiteak ez dituela Kanboko enpleguak salbatuko. Ekonomia batzordearen delegatu gisa, txosten horietan bere lana bete du. Behin eta berriz joan de Bordelera EOA-ra (Eskualdeko Osasun Agentzia) lekuko enplegu horiek defendatzera. Ez da arrazoi bat horiek denak publiko egiteko. Aizpuru andereak oroitarazten du osasunarena arlo arautua dela, egitura hauei buruzko erabakiak ez direla berriki hartuak izan, baina PRS SROS 2006/2011 planaren baitan eta horren ondorioa izan dela. Ospitale pribatuei dagokienez, gehiengoa duen taldea enplegu horien salbatzeko borrokatu da, baina, zoritxarrez, enpresa horietako promotoreek ez dute kasurik egin. Bazuten oheak BAB-ra eta beste eskualde batzuetara eramateko borondatea. Hori ez da Kanbon bakarrik gertatu, Frantziako osasun karta nazionalak agintzen du.

Hiriart-Urruty andereak ihardesten dio biziki ongi zela borroka horren eramatea, baina biziki diskretuki egin dutela. Hautetsi gisa, bere taldekoek eraman diren urraspideen berri ukan nahi zuten.

Bacardatz jaunak galdetzen du ea ordain sari bakoitzaren balio garbien taula Herriko Kontseiluaren aktan agertuko den.

Devèze jaunak erantzuten dio elementu horiek herriak argitaratu behar dituen baldintzetan emanen direla.

Auzapez andereak bozkara ematen du.

Gehiengoz onartua.

Kontra bozkatu dute : Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Amaia Beyrie andereak.

## 7 – Ahalmenen delegazioa.

Auzapez andereak adierazten du Herriko Kontseiluak auzapezari bere eskumenen zati bat delega diezazkiokela. Delegatu daitezkeen arloak Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L. 2122-22 artikuluan, 2017ko otsailaren 28ko 2017-257 legeko 74. artikulua aldatuz, zehaztuak dira, eta artikulua horrek dio auzapezak eskumen guztiak edo zati bat jaso ditzakeela bere agintaldi osorako, eta honakoak proposatzen ditu:

1° herriko zerbitzu publikoak erabiltzen dituzten herriko jabegoen esleipena erabaki eta aldatu, eta herriko jabegoen zedarriztatze akta oro egin,

2° herriko kontseiluak finkatu dituen mugetan, aurrekontuan sartuak diren inbertsioak finantzatzeko eta maileguak kudeatzeko erabilgarriak diren finantza operazioak burutzeko maileguak egitea, baita tasa eta truke arriskuez babesteko operazioak, eta L. 1618-2 artikuluko IIIan eta L. 2221-5-1 artikuluko a)-an aipatzen diren erabakiak hartzea, artikuluko bereko c) puntuko xedapenen mugetan, eta horretarako behar diren aktak egitea,

3° kredituak aurrekontuan sartuak direnean, deialdi eta koadro akordioak prestatu, izenpetu, gauzatu eta ordaintzea, baita hauen emendakinei buruzko erabakiak ere,

4° hamabi urte baino gehiagokoak ez diren alokairuen gauzatzea eta berrikustea erabakitzea,

5° asurantzak kontratuak izenpetzea eta hauei loturiko ezbeharren ordainak onartzea,

6° hilerrietako kontzesioak eman eta berreskuratzea,

7° 3000 €tik gorako karga eta baldintzarik ez duten dohain eta legatuak onartzea,

8° 4 600 € arteko ondasun higigarrien adosturiko alienazioa,

9° abokatu, notario, zinpeko, uxer eta justizia adituen ordain sariak finkatzea eta ordaintzea,

10° hirigintza dokumentuen aplikazioz egiten diren lerrokatzeen eskuratzea finkatzea,

11° kasu guztietan, herriaren kontrako jardun guztietan herria defendatzea,

12° herriko ibilgailuekin gertatutako istripuen kalteak ordaintzea, 5 000 € arte,

13° hirigintza kodeko L. 311-4 artikulua laugarren paragrafoan aipatzen den hitzarmena izenpetzea, zeinean zehazten diren eraikuntza enpresa batek antolamendu adostuko eremu baten ekipamenduaren gastuetan duen parte hartzea, eta kode bereko L. 332-11-2 artikulua hirugarren paragrafoan aipatzen den hitzarmena izenpetzea, zeinean zehazten diren jabe batek zein baldintzetan ordaindu behar duen errepide eta sareen gaineko parte hartzea,

14° altxortegi partidak gauzatzea, Herriko Kontseiluak finkatutako mugetan,

15° herriko kontseiluak finkatu dituen mugetan, herriko ondasunak suntsitu, eraldatu edo eraikitzeke hirigintza baimen eskaerak egitea,

16° Herriaren izenean, etxebizitza lokalak okupatzen dituztenen babesari buruzko 1975eko abenduaren 31ko 75-1351 legeko 10. artikuluko I.lean aurreikusten den eskubidea betetzea.

Honako artikuluko 3.aren arabera onartzen diren delegazioak bertan behera gelditzen dira Herriko Kontseilurako hauteskunde kanpaina hasten denean.

14. puntuari dagokionez, Bacardatz jaunak Herriko Kontseiluak finkatu duen kopurua zein den galdetzen du.

2. puntuari dagokionez, Devèze jaunak proposatzen du maileguak egiteko herriko kontseiluak finkatzen duen muga 50 000 €tan ezartzea. Ber kopurua proposatzen du 14. puntuarentzat, altxortegi partida. Horrek suposatzen du kasik beti biltzarrean aipatu beharko dela.

Bacardatz jaunak 1975eko abenduaren 31ko 75-1351 legeko 10. artikuluko I.ari buruzko xehetasunak eskatzen ditu, 16. puntua. Bere taldeak ezin du delegaziorik eman legea ezagutu gabe.

16. puntuko legea irakurri artean, Auzapez andereak bozkara ematen du mailegu eta altxortegi partidetarako herriko kontseiluak finkatzen duen kopurua, 50 000 €ko muga batean.

Aho batez onartua.

Devèze jaunak zehazten du delegazio hauek lehen jadanik bazirela, eta aldaketa bakarra 50 000 €ko muga hauekin ematen dela.

Auzapez andereak 75-1351 legeko 10. artikuluko I.aren irakurketari ekiten dio, 16. puntuari lotua :

«Orduan, herriak, alokatzaileak lekuan atxikitze, bi hilabeteko epea du, notifikazioa egiten denetik, etxebizitzak eskuratzeko finkatu den prezioan edo prezio apalago batean. Adostasunik ez bada lortzen, desjabetze gaietan eskumena duen jurisdikzioak finkatuko du erosteko prezioa; prezio horrek ez ditu kontutan hartzen bestelako sariak, hala nola berrerabilpen ordain saria. Desjabetze arauen arabera, finkatutako prezioa ordaindua, edo kontsignatua izan daiteke. Eskuratuko balu, herriak bere prezioa eman behar du ondasuna eskuratzeko erabakia hartu duenetik, jurisdikzioaren behin betiko erabakitik edo, akta edo adjudikazio epaitik sei hilabetera. Ordainketa ezean edo, honako paragrafoan aurreikusten den sei hilabeteko epea iraungitzeagatik diru kopurua ezin bada ordaindu edo kontsignatu, jabeak bere ondasuna berreskuratzen du. »

Bru jaunak zehazten du jabe batek bere ondasuna saldu nahi duelarik, lehentasunez alokatzen duenari proposatu behar diola finkatutako prezioan. Herriak epe zehatz batean, eta jabeak finkatutakoa ez den kopuru batekin, lehentasunez erosteko eskubidea erabil dezake, hots ondasuna alokatzailearen orde z eros dezakeela, alokatzailea etxebizitza horretan egoteko gisan.

Bacardatz jaunak gehitzen du orain arte herriak lehentasunez erosteko eskubidea Herriko Kontseiluan aipatzen zela erabakia baikorra zelarik. Kontrako kasuan auzapezak zuen erabakia balioztatzen. Galdetzen du ea alde horretatik aldaketarik ba ote den.

Bru jaunak baieztatzen du 2014ko erabakian hori aipatzen zela. Ez daki gaur egun kontseiluak holakorik nahi ote duen. 1995etik Bru jaunari beti iduritu zaio, Alienatzeko Asmo Aitorpen (3A) bati ezekoa ematen zitzaionean, berak Herriko Kontseiluaren izenean egin zezakeela, aldiz, erosi behar zelarik pentsatzen zuen txostena Herriko Kontseiluan aipatu behar zela . Bru jaunak Bacardatz jaunari ohartarazten dio orain gauzak aldatu direla, ezen 3A-ak Euskal Hirigune Elkargoan aztertzen baitira, eta ez herrian.

Bacardatz jaunak ohartarazten du 16. puntuak beraz ez duela balio, Euskal Hirigune Elkargoak duelako eskumena.

Bru jaunak erantzuten dio, baietz, Euskal Hirigune Elkargoak duela erabakitzen baina Herriko Kontseiluak eskaturik. Pentsatzen du herriak salgai den ondasun bat erosi nahi baduela, Herriko Kontseiluan aipatu behar dela.

Bru jaunak pentsatzen du on litzatekela erabakian zehaztea puntu horrek soilik balio duela ezezko kasuentzat eta baiezko kasuentzat Herriko Kontseiluan aurkeztu beharko dela.

Auzapez andereak bozkara ematen du.  
Gehiengoz onartua.

Ez dute bozkatu : Argitxu Hiriart-Urruty andereak, Philippe Bacardatz jaunak, Nathalie Aïçaguerre andereak, Amaia Beyrie andereak.

## 8 – Komunikazioak.

- Auzapez andereak jakitera ematen du jende ibiltariak instalatu direla futbol zelaian, Action Grand Passage (AGP) taldeko kideak dira.

Bardin jaunak zehazten du joan den igandean, 14:13tan, auzapez orde gisa igandeetan ere eskuragarri delako, Uztaritzeko jendarmeen deia jaso duela, erranez jende ibiltarien talde bat Michel Labéguerie kirol zelaian kokatzen ari zela bere karabanekin.

Lekura heltzean, ohartu da futbol zelaia karabanaz betea zela eta kanpoan karabana lerro bat zain zegoela. Badira gitu gora behera hirurogeita hamar familia eta ehun bat karabana.

Segidan, taldeko arduradunarekin mintzatzea eskatu du, jakinarazteko ez zuela herriko zelai hori legez kanpo okupatzeko eskubiderik.

Bi errugbi zelaiak ez okupatzea eskatu dio eta arduradunak baikor erantzun dio.

Talde horrek ura hartzeko suhiltzaileen iturri bat erabiltzen du, suhiltzaileen egoitzaren aitzinean dena hain zuzen, eta elektrizitatea hartzeko argizatze publikorako kableak konektatzen ditu kontadoreak baino lehen.

Auzapez anderea iritsi delarik, arduradunek erran dute bi edo hiru astez egonen zirela.

Bardin jaunak eransten du uztailaren 17an astelehenez, Auzapez anderea, zerbitzuetako zuzendari nagusia, karrika zaintzailea eta bera AGP komunitateko hiru artzainekin bildu zirela eremu publikoaren okupazio hori antolatzeke, jakinez legez kontrakoa dela eta herriak ez duela begi onez ikusten.

Alabaina, bi aldeek hitzarmen bat izenpetu zuten non zehazten zuten uztailaren 30ean igandez, 14:00etan taldeak hortik joan behar zuela.

Aldi berean, Paueko Administrazio Auzitegian berehalako auzi bat aurkeztu genuen legez kanpo okupatua zen herriko terreno hori libratzeko.

Bi egunetik behin hautetsiak bertara joan dira lekuaren egoera egiaztatzeko.

Zoritxarrez, Bardin jaunak uste du futbol zelaia berriz egin beharko dela, zeren berrogeita hamar zentimetroko bi hesola sartzan direlarik ureztatze automatikoa duen zelai batean, nahitaez kalteak eragiten baitira.

Bardin jaunak adierazten du herriak lehen aldikotz errezibitzen dituela jende ibiltariak. Pentsatzen du Euskal Hirigune Elkargoan hutsune bat badela, eta espero du erabaki bat laster hartuko dela, ehun ta berrogeita hemezortzi herrien mailan, jende ibiltariak

errezibitzeko gune bat antolatzeko. Urte guztiz, Ipar Euskal Herriko herriek egoera hori pairatzen dute, gastuak sekula ez baitira aurreikusiak. Futbol zelaia konpontzea 15 000 € eta 20 000 € artean kostatuko zaio herriari. Bardin jaunak espero du Euskal Hirigune Elkargoak azkenean bere ardurak beteko dituela eta gaiak hausnartuko dela.

Auzapez andereak gehitzen du Bardin jauna izan zela bertara hurbildu zen lehena. Ikusi besterik ezin zuela egin karabana gehienak jadanik futbol zelaian sartuak zirela, baina halere ongi negoziatu duela errugbi zelaiak okupa ez zituzaten.

Bacardatz jaunak galdetzen du futbol zelaia agorrila hastapenetik konponduko denez, denboraldia irailean hasten baita.

Bardin jaunak zehazten du lekuaren egoera-akta kontradiktorioa egingen dela uztailearen 30ean, joanen diren egunean. Zelaiaren ureztatze automatikoa martxan ezarriko delarik ageriko dira kalteak. Helburua da zelai hori lehenbailehen konpontzea, zeren Kanboko-ak erabiltzen baitu eta txapelketak laster hasiko baitira.

Bardin jaunak Kontseiluko kideei proposatzen die bertara joan daitezkeen lekuaren egoera-akta egingen denerako.

Joan den asteazkenean, Errobi lurralde eremuko bilkuran, Auzapez andereak Kanbo eta inguruko herrientzat jende ibiltariak errezibitzeko zelai baten premia larria azpimarratu du.

Hiriart-Urruty andereak dio Bardin jaunak erran duela lehen aldikotz Kanbora jin direla buhameak,

Bardin jaunak hitza moztu dio "buhame" (frantsesez "gitans") hitza erabil ez dezan. Jende ibiltariak dira.

Hiriart-Urruty andereak barkamena eskatzen du. Urteak daramate jende ibiltari horiek haltiako bidera etortzen, bere auzoan, eta jendeak ez dira bereziki kezkatu. Bardin jaunak zehazten du EHE-ak bere ardurak bete behar zituela, baina arazoa ez dela berria, eta lehen Errobi Herri Elkargoak zuela aterabide bat atxeman behar. Ez da hala izan. Uztaritzeko herriak zelai bat proposatu zuen, baina ezin izan da egin.

Bru jaunak gehitzen du ezin izan zela egin, frantses Estatuak nahi izan ez duelako. Jabea, Uztaritzeko herria eta Errobi Herri Elkargoa ados ziren. Denak prest ziren Uztaritze eta Milafranga arteko zelai horren gastuetan parte hartzeko. Frantses Estatuak ez du onartu ingurumen arazoengatik, eta penagarria da, zeren hemen, Ipar Euskal Herrian, zaila baita ehun edo berrehun karabana gehi ibilgailuak har ditzakeen zelai aski handia atxematea.

Auzapez andereak zehazten du haltiako bidean karabanak lur sail pribatu batean kokatzen zirela eta orain zelai hura hesiz inguratua dela. Beraz, ez da gehiago arazorik.

Hiriart-Urruty baieztatzen du ez dela gehiago arazorik. Zelai pribatu hori herriko langileek garbitu zuten. Traba bat bazen, baina halere onartu behar da errespetuzko jendeak zirela. Azpimarratu besterik ez zuen egin nahi ez zela lehen aldia Kanbora jiten zirela.

Bardin jaunak erantzuten dio haltiako bidean ez zirela ehun karabana.

Hiriart-Urruty andereak ihardesten dio halere bazirela hirurogei bat. Eta ez da guti.

Auzapez andereak proposatzen du etorkizunera begiratzea, eta ahaleginak egitea Euskal Hirigune Elkargoa lanean sar dadin zelai baten atxemateko.

Bardin jaunak zehazten du komunitate horrek hitz eman duen bakoitzen hitza bete duela. Ez dira igerilekura sartzen ordutegitik kanpo. Zuzenak dira.

Auzapez andereak zehazten du heldu den Herriko Kontseilua irailean egingen dela. Denei uda on bat opa die, eta oroitarazten du Kanboko bestak izanen direla eta denen parte hartzea espero duela.

Auzapez andereak bere lehen Herriko Kontseiluko bilkura hesten du 11:45etan.